# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7022**

**74/2012 FORU DEKRETUA, abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena, egoera meteorologiko jakin batzuk eragindako nekazariei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketa zatikatua (2012ko bigarren seihilekoa) kentzekoa.**

Ekaitzak egon ziren, euri, diametroko 3 cm-ra arteko harri kazkabar eta haize handiekin, 2012ko maiatzaren 2an eta uztailaren 26an, zeinak kalte handiak eragin zituzten Arabako Errioxako erdialdeko hainbat mahastitan.

Bestalde, kanpaina honetan lehorte handia ere egon da, horrek galera handiak eragin dizkiolarik mahatsaren ekoizpenari Arabako Errioxan.

Foru dekretu honen helburua da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboei 2012ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatua ordaintzeko betekizuna kentzea. Horretarako, baldintza hauek bete behar dituzte: nekazaritza jarduera modu esklusiboan garatu, mahasgintzan aritu eta aipatutako fenomeno meteorologikoen ondorioz kalteak jasan izan, hain zuzen, gutxienez ehuneko 30eko ekoizpen galerak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

**1. artikulua. Aplikazio eremua.**

Foru dekretu honen 2. artikuluan ezarritako neurria honakoei aplikatuko zaie: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan, 129. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz zatian, definitzen diren zergadunei, baldin eta Arabako Errioxan duten mahasgintzako nekazaritza jarduerak kalteak jasan baditu 2012ko maiatzaren 2ko eta uztailaren 26ko ekaitzen ondorioz, edo lehortearen ondorioz, gutxienez ehuneko 30eko ekoizpen galerak izanik, eta foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

**2. artikulua. 2012ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatua kentzea.**

Foru dekretu honen 1. eta 3. artikuluetan jasotako baldintzak betetzen dituzten zergadunak salbuetsita geratuko dira 2012ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatua ordaintzetik.

**3. artikulua. Prozedura.**

1. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak ofizioz bidaliko dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari foru dekretu honen 1. artikuluan aipatutako aplikazio eremuaren barruan sartzen diren errenten egozketaren araubideko pertsona fisikoen eta erakundeen zerrenda osoa.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ardura izango da egiaztatzea zerrenda horretan sartutako zeintzuk betetzen dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan, 129. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz zatian, ezarritako baldintzak, aurreko artikuluan ezarritako ordainketa kentzeko xedez.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**7022**

**DECRETO FORAL 74/2012, del Consejo de Diputados de 18 de diciembre, que elimina el pago fraccionado del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al segundo semestre del ejercicio 2012 para aquellos agricultores afectados por determinadas circunstancias meteorológicas.**

En los días 2 de mayo y 26 de julio de 2012, tuvieron lugar tormentas con lluvia acompañada de granizo con piedras de hasta 3 cm de diámetro, y fuertes vientos, que causaron importantes daños en viñedos ubicados en la zona central de Rioja Alavesa.

Por otra parte, en la presente campaña ha concurrido la circunstancia meteorológica de una gran sequía que ha producido elevadas pérdidas de producción de uva en Rioja Alavesa.

El presente Decreto Foral tiene por objeto suprimir la obligación de abonar el pago fraccionado correspondiente al segundo semestre del ejercicio 2012 a todos aquéllos sujetos pasivos del Impuesto sobre la Renta de la Personas Físicas que desarrollen, de manera exclusiva, su actividad agrícola, tengan como cultivo la vid y se hayan visto afectados por los fenómenos meteorológicos de referencia, con pérdidas en la producción en un porcentaje igual o superior al 30 por ciento.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

**Artículo 1. Ámbito de aplicación.**

La medida establecida en el artículo 2 de este Decreto Foral se aplicará a aquellos contribuyentes que se definen en la letra b) del apartado 1 del artículo 129 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que hayan visto afectada su actividad agrícola de cultivo de la vid en la zona de Rioja alavesa por las tormentas acaecidas los días 2 de mayo y 26 de julio de 2012 o por la sequía, con pérdidas en la producción en un porcentaje igual o superior al 30 por ciento y cumplan los requisitos establecidos en el artículo 3 de este Decreto Foral.

**Artículo 2. Supresión del pago fraccionado correspondiente al segundo semestre del ejercicio 2012.**

Los contribuyentes, en los que concurran las circunstancias establecidas en los artículos 1 y 3 de este Decreto Foral, quedarán exentos de la obligación de ingresar el pago fraccionado correspondiente al segundo semestre del ejercicio 2012.

**Artículo 3. Procedimiento.**

1. El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava remitirá de oficio al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos listado de todas aquellas personas físicas y entidades en régimen de atribución de rentas que entren dentro del ámbito de aplicación a que se refiere el artículo 1 del presente Decreto Foral.

2. El Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos comprobará qué contribuyentes del listado antedicho cumplen los requisitos establecidos en la letra b) del apartado 1 del artículo 129 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, a fin de aplicar la supresión del pago establecida en el artículo anterior.

3. Ordainketa zatikatuaren likidazioa ofizioz egitekoa bada, Arabako Foru Aldundiak baliogabetuko du ofizioz.

4. Jarduera ekonomikoari hasiera eman izanagatik ordainketa zatikatuen autolikidazioa zergadunak egin behar duenean, ez da bete beharko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan, 129. artikuluko 4. paragrafoan, ezarritako betebeharra. Ondorioz, kendu egingo da 2012ko bigarren seihilekoari dagokion zenbatekoa ordaintzeko betekizuna.

**4. artikulua. Ofizioz egindako likidazioaren aurkako erreklamazioa.**

Arabako Foru Aldundiak ofizioz egindako 2012ko bigarren seihilekoari dagokion ordainketa zatikatuaren likidazioa jasotzen duen zergadunak uste badu foru dekretu honek ezarritako aplikazio eremuaren barruan dagoela, bere kasua berraztertzeko eskatu dezake, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan, 129. artikuluko 6. paragrafoan, adierazitako prozeduraren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 18a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

3. Si la liquidación del pago fraccionado corresponde efectuarla de oficio, la Diputación Foral de Álava procederá a su anulación de oficio.

4. En el supuesto que, por inicio de la actividad económica, corresponda al contribuyente efectuar autoliquidación de los pagos fraccionados, se exonera de la obligación establecida en el apartado 4 del artículo 129 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedando en consecuencia suprimida la obligación de ingresar la cantidad que corresponda al segundo semestre del ejercicio 2012.

**Artículo 4. Reclamación contra la liquidación de oficio.**

El contribuyente que reciba liquidación de oficio de la Diputación Foral de Álava correspondiente al pago fraccionado del segundo semestre del ejercicio 2012 y considere que se encuentra dentro del ámbito de aplicación de este Decreto Foral, podrá solicitar su revisión de conformidad con el procedimiento establecido en el apartado 6 del artículo 129 del Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de diciembre de 2012.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7023**

**646/2012 ERABAKIA, abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da hitzarmena izenpetzea, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, Troperagain Urkidetzaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko.**

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 8. artikuluko lehen paragrafoan xedatzen duenez, udal erakundeak eta foru aldundia elkarlanean jardungo dira, sinatu beharreko hitzarmena sinatuta, tributuak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztietan.

Elkarlan edo lankidetza printzipio hori Arabako Foru Aldundiaren eta aipatutako foru arauaren III. tituluan adierazitako erakundeen (udalaren gainetik dauden erakundeak) arteko harremanetan ere aplikatuko da, zeren eta foru arau horren 55. artikuluaren 3. atalean adierazitakoari jarraituz, II. tituluak xedatutakoa aplikatu behar zaie.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak eta Troperagaingo Urkidetzak lankidetza hitzarmena izenpetuko dute, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, aipatutako partzuergoaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.7) artikuluan xedatutakoa kontuan hartu da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketaren ardura duen erakundearen bidez, Troperagaingo Urkidetzaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean kobratzeko hitzarmena izenpetzea, zeina erabaki honen eranskinean ageri den.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**7023**

**ACUERDO 646/2012, del Consejo de Diputados de 18 de diciembre, que aprueba la suscripción de un Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de esta Diputación Foral, de los créditos y derechos correspondientes al Consorcio de Aguas de Troperagain.**

El artículo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.

Este principio de colaboración, resulta también aplicable a las relaciones entre la Diputación Foral de Álava y las Entidades Supramunicipales descritas en el Título III de la citada Norma Foral, dado que, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 55 de la misma, les será de aplicación lo dispuesto en el Título II.

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y el Consorcio de Aguas de Troperagain, desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos del citado Consorcio.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8.7), de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero. Aprobar la suscripción con el Consorcio de Aguas de Troperagain, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Entidad encargada de la recaudación ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes al citado Consorcio, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.